# EDITORIAL

## *ETA GURE HERRIKO MENDIAK, ZER?*

*Idazlaritza Kontseiluaren batzarrean, hurrengo alearen edukiaren begirada bat egiterakoan, berriro ere agertzen da lehengokontu zaharra: ez dagoela gure mendiei buruzko artikulorik.*

*Eta zergatik ote den hau aztertzerakoan betiko arrazoiak-azaltzen dira: guztioi askoz ere errazago egiten zaigula arrunetik egindako ibilaldi eta eskalada zailei buruz idaztea «etxetik zehar» egindakoei buruz baino, ibilaldiaren mezua edo partea bakarrik kostatzea ez dela nahikoa: hemen dena dagoela esanda, antza, eta benetan artikulo jatorrak egin beharko liratekeela interesgarriak izan daitezen; dena azaltzen duten makina bat liburu on dagoela eta horregatik, antza, zaila dela ezer berririk esatea...*

*Egia dena zera da: Euskal Herriko mendiei buruz artikuloak idaztea zail egiten dela, eta beste sailetara egileek berek, beraien iniziatibaz, beren lanak bidaltzen dituzten bitartean, hemen, berriz, betiko laguntzaile berdinengana jo beharra dago.*

*Argi gelditzen da, ba, guk sail hau patxaraz betetzea nahi dugula eta zuen laguntza gogotsua behar dugula. Ezer gehiago esatekorik ez dagoela uste omen da baina kendu behar da uste hori, eta horretarako nahiko izango da, seguraski, adimena zorrotzen badugu pizka bat. Nondik jo erakusten diguten bideak begi-bistan ditugu (argazkiak, asmo apaleko liburu interesgarriak, e.a.). Eta beste bide asko eta asko guk, geuk, lor ditzakegunak. Gai edo arlo hau, ba, zabala da eta nondik heldu mugagabeko posibilitateak ere badaude.*

## ¿Y DE LOS MONTES DEL PAIS, QUE?

Al repasar el contenido del siguiente número, en la reunión del Consejo de Redacción, vuelve a repetirse la vieja historia: falta el artículo sobre nuestras montañas.

En seguida comienzan a desgranarse las explicaciones de rigor: a todos nos resulta mucho más fácil escribir sobre andanzas lejanas o sobre escaladas difíciles que contar excursiones «por casa»; porque no basta con relatar el parte de la excursión: aquí parece que está todo dicho y que habría que hacer relatos verdaderamente originales para que fuesen interesantes; hay muchos libros buenos que lo explican todo y parece que es difícil aportar novedades...

Lo cierto es que cuesta recibir artículos sobre las Montañas de Euskal Herria y —a diferencia de otras secciones a las que llegan trabajos por iniciativa de sus autores— aquí, casi siempre, hay que acudir a buscarlos entre los mismos colaboradores habituales.

Queda claro que queremos cubrir con dignidad esta sección y que necesitamos una entusiasta colaboración. Probablemente es cuestión de «echarle imaginación» para que desaparezca esa impresión de que no queda nada por contar. Hay ejemplos que tenemos a la vista (visiones fotográficas, éxito de libros de intención modesta, etc.) que señalan pistas a seguir. Y hay otros muchísimos caminos que podemos descubrir por nosotros mismos. El tema es amplio y las posibilidades de tratamiento prácticamente ilimitadas.